

## HARITZALDE IGARAN EGITEKOA DEN KANPINAREN AURKA

**Haritzalde Naturzaleen Elkartetik** biharko Udalbatzan onartzekoa den **Igarako Tenisean** egin nahi den kanpinaren aurka gaudela adierazi nahi dugu, erabateko desadostasuna erakutsiz. **Jarduera, Igarako bailaran dauden natur balioen kontsebaziorako**, eta bere osotasunean hartuta Mendizorrotz mendiarentzat, **mehatxu zuzena** iruditzen zaigu. Gainera, etorkizunean gerta litezken beste erasoei bide ematen die, Europa mailan babesturik dauden habitat naturalak, haltzadiak kasu, edota **mehatxaturiko flora eta fauna espezieak**, ipurtatsa eta **hegoaldeko zuhaitz-igela** esaterako, **arriskuan** jarriz.

**Haritzalden** urteak daramatzagu Mendizorrotz babesteko eskatuz, bereziki erreka eta erreka sarea. Hasieran Biotopo babestuaren irudi legala aldarrikatu bagenuen ere, gerora **behin eta berriz Mendizorrotzen GKL** (Garrantzi Komunitarioko Lekua) **bat sortzeko eskatu dugu**. Are gehiago, I Nazioarteko Anfibioren Kontsebaziorako Jardunaldietan bildu ziren adituen ondorioak eskumenak dituzten Erakunde Publikoei luzatu genizkien, puntu haiek geureak eginez. Eta horietan, hegoaldeko zuhaitz-igela edo Igeldoko igeltxoaren (*Hyla meridionalis*) habitataren kontsebazioa eta babesa bermatu ahal izateko, GKL bat sortzea ezinbesteko jotzen zen. Orain arte, ordea, ez da inongo erantzun formalik jaso.

**Igarako Tenisa eraiki zenean eta aurretik lurraren kalifikazioa aldatu zenean ere gure erabateko desadostasuna agertu genuen**. Ordungo lanetan **ondoko errekaen aurkako erasoak gertatu zen**, haltzadia kalteturik suertatuz. Gerora, martxan zegoela, noiz edo noiz **arazoak izan ziren ur beltzekin**, hobi septikoa gainezka egin baitzuen, Igeldoko kanpinekoa urteetan egin duen legez. Azken horretan udaberrian nahiz udan, jendez gainezka zegoenean sistemak ez baitzuen ematen, beheko erreka kutsatuz. Eta ondorioz, ur-ibilgu horretatik hornitzen den Etxebesteko putzua, zeina igeltxo ugaltzeko eraiki den putzu sarearen parte den, guztiz eutrofizaturik dago. Bestalde, Igarako Teniseko igerilekua igeltxoarentzat putzu-tranpa bilakatu zen, arriskutsua oso.

**Kanpinaren** sorrerak edo hobe esanda Teniseko birmoldaketak berak ez du **inpaktu** handirik sortuko, **horiek aurretik eginak** baitziren. Baina **behin irekita emendatzen joango dira erabiltzaile-kopurua gora egiten duen neurrian**. Izan ere, jendea eta autoen joan-etorri hutsak

**ingurunea eraldatzeko eta kutsatzeko arriskua** ekarriko baitu. Ez dugu ahaztu behar **faunak dituen mehatxuan artean errepideetan ematen diren harrapaketa eta zapalketak daudela, igeltxoarekin baieztatu dugun moduan**. Horren harira, Haritzaldek behin baino gehiagotan Igarako bidean harrapaketen aurkako neurriak ezartzea eskatu du, hala nola “arrisku” zein abiadura moteltzeko seinaleak eta lurreko zeharkako balazta-bandak. Orain arte ez dugu erantzunik jaso.

Baina **okerrena** ez da pertsonen eta ibilgailuen mugimendutik etorriko dena, ezta gerta litezken istripuak eta nahigabeko kutsadurak eta isurketak ere, baizik eta **etorkizunean zonaldean garatu litezken azpiegitura eta proiektuak**. Kanpinak proiektu berriei ateak ireki dakieke, ziniko bezain lotsagarri gertatu zitzaigun “ekohiria” bezalako proiektu txoroei bide emanez.

Horregatik guztiagatik, **Haritzalde Naturzaleen Elkartek** Plan Bereziaren onarpenaren aurka agertu nahi du, Igarako Tenisean kanpin bat jartzearen kontra dagoela berretsiz. **Lurraren kalifikazioa garai batean zuenera berriro aldatzea** eskatzen dugu, landa eremua baita. **Eta behingoz, hegoaldeko zuhaitz-igelaren habitata** bere osotasunean **babestea** nahi dugu. Horretarako **Mendizorrotz**, Igarako bailara guztia barne, lehenbailehen **GKL izendatzea** **aldarrikatzen dugu**.

Donostian, 2012ko abenduaren 19an.



[www.haritzalde.org](http://www.haritzalde.org)

**Harremanetarako: 609 420 438** [naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org)